

Detektibe gazteak eta disimulatu ohi diren pare bat gai



Alaitz Olaizola, Idoia Garzes eta Arrate Egaña. / ARIZMENDI

Haurrei zuzendutako liburu bana kaleratu dute Erein argitaletxearen eskutik Arrate Egaña, Alaitz Olaizola eta Idoia Garzes idazleek

N. AZURMENDI

Lunes, 7 octubre 2019, 19:41



Jatorri eta estilo oso desberdineko hiru liburu aurkeztu berri ditu Erein argitaletxeak irakurle gazteenei zuzendutako beste horrenbeste sailetan: **Arrate Egañaren 'Arimen Parkearen misterioa'** kontakizuna; **Alaitz Olaizolaren 'Nork agintzen du?'** antzezlan eta **Idoia Garzesen 'Hari single bat'**, 2018ko Lizardi Saria irabazi zuen ipuina.

Haur literaturan eskarmentu handia duen Egaña 2017an 'Ume desagertuaren kasua' liburuarekin aurkeztu zigan Klarisa Lupabitx bitxiaren beste kasu bat da **'Arimen Parkearen misterioa'** (176 orr., 14 euro). Klarisa, desagertuaren espezializatutako detektibea, iragan enigmatikoa duen edadeko emakumea da.

Marimar Agirreren ilustrazio eder eta adierazgarriak dituen liburuaren azalean bertan igartzen da denbora ez dela alferrik igaro. Aurreneko liburuaren azalean Klarisa bakarrik agertzen zen, besoetan katua zuela. Bigarren liburu honen azalean, berriz, K Taldea osatzen duten lau detektibe gazteak ikus daitezke, haiek saiatuko baitira argitzen zer gertatu den Magurain izeneko herrian desagertu diren umeekin. Klarisa ere ahalegindu zen bere garaian antzeko misterio bat argitzen, baina ez zuen emaitzarik lortu. Argitu gabe utzi duen kasu bakarraren arantzak hor jarraitzen duenez, aspaldiko ezagun batek bigarren aukera eskaintzen dionean ziztu batean hartuko du, lau gazteen konpainian, Bilbotik Magurainerako bidea.

Liburuaren aurkezpenean Arrate Egaña azaldu zuen aurrenekoan baino akzio gehiago dagoela bigarren liburu honetan. Nabarmendu zuen halaber kontakizuna girotu duela misteriorako eta zirrarako oso aproposa den garai batean: Gau Beltzaren inguruko egunetan.

Hautu horren bidez, sustraiak Euskal Herrian dituen Gau Beltza erreibindikatu nahi izan du Egaña atzeritar kutsuko Halloweenen aldean. Klarisa bildumako lehen liburua bezala, bigarren hau ere aldi berean argitaratu da euskaraz eta gaztelaniaz eta 8-12 urte bitarteko irakurleentzat pentsatuta dago.

Gai korapilatsuak

Beste bi idazleek, Alaitz Olaizolak eta Idoia Garzesek, haurrentzat desegokiak direlakoan-edo maiz disimulatu egiten diren bi gai korapilatsu landu dituzte hurrenez hurren liburu banatan: **eskola jazarpena eta memoria historikoa**. Antzerkigintzan urte asko daramatzan Alaitz Olaizola azpeitiarrak kaleratu duen liburuak, **'Nork agintzen du?'** (64 orr., 10,5 euro) antzezlanak, jatorri oso berezia du. Idoia Garzes lasartearrak, berriz, iaz 37. ediziora iritsi zen Lizardi saria irabazi zuen Ereinek Auskalo sailean argitaratu duen **'Hari single bat'** (144 orr., 11 euro) ipuinarekin. Olaizolaren liburua Manuel Ortegak ilustratu du, eta Garzesena Leire Urbeltzek.

Olaizolak aurkezpenean azaldu zuenez, egun batean borobilean eserita aurkitu zituen antzerki tailerreko 8-12 urte bitarteko haurrak, solasean. Haietako batek pairatzen zuen eskola jazarpena zuten hizpide, eta erabaki zuten huraxe izango zela haien hurrengo antzezlanaren gaia. Zortzi lagun zirenez, zortzi pertsonaia sortu zituzten: bost neska-mutiko eta gure planetan konponketa zailekoa den arazoa bideratzera etorritako hiru estralurtar. «Antzeztu zutenean hunkigarria izan zen», gogoratu zuen Alaitz Olaizolak, eta nabarmendu zuen liburuan eskaintzen direla antzezlanaren taularatzeko behar diren jarraibide denak, nahiz eta irakurgai bezala ere ondo funtzionatzen duen.

'Hari single bat' Garcesen lehen liburua da. Eskaintzak –'Amona Rufinari, etenik ez da'– ondo biltzen du ipuinaren espiritua, amonaren baserri zaharrea aurkituko baitu protagonistak, Arrakok, etena ekiditeko bidea emango dion ardatz zahar bat. «Ardatz horretatik hari bat irteten da, eta Arrako hasiko da bere familiarren historia iruten...», esan zuen idazleak aurkezpenean. Hari single batetik tiraka, historia isildu eta ahantzia azaleratzen joango da Arrako, umorearentzat, gurasoen eta haurraren arteko sesioentzat eta ilustrazio koloretsu eta deigarrirentzat ere tokia baduen liburuan.

TEMAS **Euskera**



La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate

Comentarios

Patrocinada

Noticias relacionadas



Donostiako toki ezagunen historia ez hain ezaguna




'Arantzazu, harriz herri' Donostian ikusgai izango da



Kameratoian izena emateko epea ireki dute

Fotos




33 viajes en helicóptero para llevar la grúa al Faro



Tutankamón viaja a Londres



Cristina Iglesias visita la isla Santa Clara



Fotos de los que visten a los personajes de las series

Vídeos

Culturas

Un viaje por la Suecia profunda en busca de 'Annabelle'



EL DIARIO VASCO

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Domicilio social en Camino de Portueta, 2 San Sebastián 20018



vocento

- ABC
- ABC Sevilla
- Hoy
- El Correo
- La Riga
- El Norte de Castilla

- Diario Vasco
- El Comercio
- Ideal
- Sur
- Las Provincias
- El Diario Montañés
- La Voz Digital
- La Verdad

- Leonoticias
- Burgosconecta
- Piso Compartido
- Infoempleo
- Guapabax
- Finanzas
- Autocasión
- Oferplan

- Pisos.com
- Mujerhay
- XL Semanal
- Código Único
- Nylon
- Pidecta
- TopComparativas